



EUSKAL JAIA URRETXU 2018

Irailak 23 igandea

Karrozen ibilaldia

17:30

KARROZEN IBILALDI IKUSGARRIAren hasiera.

Irteera Mugitegi industrialdetik izango da

**Azpeitiko "Itsasi" Zanpantzar taldea
Tolosako dultzaineroak eta Urretxuko "Iratzarri" dultzaineroak
Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako erraldoiak
Urretxuko "Lizarriturri" Txistulari taldea**

I | OORP kuadrillaren karroza

**KOSKAZ KOSKA, ELKARLANEAN,
BERDINTASUNAREN GAILURRERA IRITS GAITEZEN**

Jaiotzen garen unetik esleitzten zaigu bizitzan egin behar dugun esfortzua, gure sexuaren arabera.

Gailurrerako bidea denoi egiten zaigu zaila; baina, emakumeok oztopo jakin batzuei aurre egin behar diegu gure helmugarako bidea, erronka astunagoa bihurtuz.

Berdintasuna lortzeko, honen desioa dugun guztion indarra batu, eta gizarte parekide bat sortzeko borroka dezagun, gizarte honek inposatzten dizkigun arauak errotik aldatzuz.

Ez al duzu uste zure ur tantak mundu utopiko horretara gerturatzan lagun diezagukeela?

**PELDAÑO A PELDAÑO, TRABAJANDO CONJUNTAMENTE,
PARA LLEGAR A LA CIMA DE LA IGUALDAD**

Desde el momento en que nacemos se nos adjudica el esfuerzo a realizar en la vida, según nuestro sexo.

El camino a la cima se nos hace difícil; pero las mujeres debemos afrontar ciertos obstáculos para llegar a la meta, siendo el desafío aún más pesado.

Para lograr la igualdad unamos nuestras fuerzas y luchemos por una sociedad paritaria, cambiando de raíz las normas impuestas por esta sociedad.

¿No te parece que tus gotas de agua nos pueden ayudar a acercarnos a ese mundo utópico?

"Lurra" Dantza Taldea

2 | IKASTOLA KILOMETROAK taldearen karroza

BATUZ EGINGO GARA HANDI

Z.U. (Zumarraga-Urretxu) Blak Bat U.Z. (Urretxu-Zumarraga) hitz jokotik sortutako leloa eta Meccano jolasa gogora dakinaren K18 irudia aurkeztuz jarri genuen martxan azaroan gure hirugarren Kilometroetako makinaria. Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaiak 42. edizioa du aurrengoa, eta hilabete hauetan urriaren 7an ospatuko dugun jaiak prestatzen aritu gara buru belarri. Zubien garrantzia nabarmendu dugu denbora honetan, zubiek batzeko balio baitute, elkar gerturatzeko eta harremanak sendotzeko. Eta elkarrekin lan eginez, indartsuago izango gara. Modu askotara batu ditugu zubiak: bertsotan, kantuan, dantzan, kirola eginez, elkarte eta norbanako ezberdiniekin elkarlana sustatzu, Gipuzkoako herri eta txoko guztiak bisitatuz... Ikastola barruko harremanak ere sendotu ditugu, komunitatea osatzen dugun ikasle, irakasle eta familien artean.

Zubiak hainbat izan daitezke, material eta sentimendu ezberdiniekin eginak, baina guztiak balio dute eraikitzeko eta batzeko. Eta Ikastolak zubiak batzen jarraituko du, horien bidez egingo baikara handi. Gure ikasleak dira horren erakusgarri, beraiek izango baitira etorkizuna eraikiko dutenak.

Urretxu-Zumarraga Ikastola lleva meses preparando la fiesta del Kilometroak que se celebrará el 7 de octubre.

Zubiak batuz (Uniendo puentes) es el lema de la fiesta de las ikastolas de Gipuzkoa de este año, que busca impulsar el trabajo en equipo y aprender los unos de los otros. Y es que los puentes sirven para unir, acercar y fortalecer las relaciones. De esta manera, conseguimos avanzar y conseguir nuestros retos. La unión hace la fuerza.

Musika taldea

3 | NEE kuadrillaren karroza

IKUSI MAKUSI

1983an margotu zituen lehen begiradak Omako Basoan, Agustin Ibarrola margolari ezagunak. Begirada haien guri begiratzeko eta guk haiei begiratzeko. Geroztik gaur egun arte, hamaika aldaketa ikusi eta jasan dituzte begirada haien. Begirada haietan hamaika ilusio sortu ditugu: egunen batean begiak irekitzeko ordua iritsiko den ilusioa, egunen batean, injustizia eta bidegabekeriaik gabeko mundu batean bizi ahalko garen ilusioa.

Makina bat gai jarri izan ditugu aztergai eta gutako bakoitzaren begiz eta begiradaz izan dira aztertuak eta epaituak. Hauak ez ditzagun gure begiradaren malkoen artean izkutatu.

Genero bereizketa, LGTBI kolektiboa, Siriako gerra... Ez dezagun gure begirada itzali auzi hauen aurrean. Hain ezberdinak baitira gutako bakoitzaren begiak eta begirada non gure begirada lausotu hauei amaiera iritsi zaien.

HORTAZ IREKI DITZAGUN BEGIK ETA GARBITU DEZAGUN GURE BEGIRADA!

VEO VEO

El año 1983 el conocido pintor Agustín Ibarrola pintó en el Bosque de Oma las primeras miradas. Para que ellas nos miren y nosotros/as mirarlas. Desde entonces, aquellas miradas han sufrido muchas modificaciones. Han surgido muchas ilusiones: ilusión de que algún día llegará la hora de abrir los ojos, ilusión de que algún día podremos vivir en un mundo sin agravios ni injusticias.

Hemos traído a examen muchos problemas, que han sido examinados y enjuiciados por la mirada de cada uno de nosotros/as. No los escondamos bajo las lágrimas de nuestra mirada.

La diferencia de género, el colectivo LGTBI, la guerra de Siria... No apaguemos nuestra mirada ante todas estas cuestiones. Son tan diferentes los ojos y la mirada de cada cual, que les llega el final a nuestras nubladas miradas.

POR TANTO, ¡ABRAMOS LOS OJOS Y LIMPIEMOS NUESTRA MIRADA!

Urretxuko trikitilariak

4 | AEBO/TEXE kuadrillaren karroza

NON IKUSTEN DUZU ZURE BURUA?

Badirudi norbait bizitzan zoriontsu izatera heltzeko, bide bakarrak hauek direla:

Ikasi, lan duin bat izan, ezkondu eta etxe polit batean umeak hazi; beraiek ere ziklo berdina jarrai dezaten. Nola ez, ikasketak dira garrantzitsuena, izan ere hauei esker lortuko dugu etorkizunean jaten emango digun lana. Lan gabe ez dagoelako dirurik, eta diru gabe ez dagoelako ez etxerik ezta umerik ere.

Eta gu hemen gaude, ikasten. Ate ugari ditugu gure aurrean, etorkizun mota desberdin posibelekin. Presioa dugu bizkar gainean. Zer nahi duten, zer nahi dugun, eta zer komeni zaigun pentsatzen. Azkenean aukeratuko dugun ate perfektuaren etengabeko bilaketa horren presioa. Ospe handia duten atea, denetatik onenak, handienak, bikainenak. Edo txikiagoak, txiroagoak, ospe gutxikoak. Diru asko edo gutxi eman ahal dutenak.

Eta bat aukeratutakoan zer?

Ikasi, ikasi, eta gehiago ikasi. Dirutza bat ordainduaz. Onenak izatera heldu arte, universitate onenean titulu onena lortu ahal izateko, horrekin gure ametsetako lana lortu ahal izateko, diru asko, etxe polit bat, bikotea, umeak... Bizitza "perfektu" eta "zoriontsu" bat izatera heltzea posible izateko.

Batzuetan hori ezinezkoa izaten den arren. Hau al da benetan zoriontasunaren errezeptatua?

Eta azkenean, hainbeste kostatutako ate hori aukeratutakoan... Badugu lan bat, auskalo zein. Eta familia bat, ala ez. Eta etxe bat. Polita? Nork daki.

Eta gu hemen gaude, atea zabaltzeko zain.

¿DÓNDE TE VES EN UN FUTURO?

Parece ser que para ser feliz en esta vida es necesario seguir estas pautas:

Estudiar, tener un buen trabajo, casarse y conseguir una casa donde criar a tus hijos para que sigan el mismo camino. Como no, los estudios son muy importantes en la vida para poder conseguir un buen trabajo, porque sin trabajo no hay dinero, sin dinero no hay casa y sin casa tus hijos no podrán tener una vida plena.

Y aquí nos hallamos nosotras, estudiando, intentando decidir qué hacer, tenemos muchas opciones para escoger nuestro futuro y una gran presión para ser quienes somos y quiénes seremos. Existen varias alternativas: puertas más grandes, con más futuro; más pequeñas, sin una salida tan fácil y las que más dinero nos pueden aportar o las que menos, y cuando escogemos una que nos espera? Estudiar, estudiar y nada más que estudiar pagando una gran suma hasta llegar a ser los mejores para entrar en una buena universidad y lograr el mejor título. De esta manera, conseguiremos nuestro trabajo soñado en el que ganaremos lo suficiente para comprar nuestra casa tan deseada para nuestra gran familia, así alcanzaríamos la vida perfecta a la que todo el mundo aspira. Aunque a veces no es tan fácil conseguirla y es casi imposible llegar a esa perfección. ¿Es esta la receta de la felicidad?

Y al final al escoger esa puerta que tantas dudas nos ha causado... Puede que consigamos un trabajo, una familia, una casa...pero puede que no pase ¿Es eso lo que queremos?

Nosotras hemos llegado a ese punto en el que nos hacen escoger la puerta de nuestro futuro.

Zumarragako trikitixa

5 | ORAIN PRESOAK kuadrillaren karroza

KONPONBIDEA, ELKARBITZITA ETA BAKEA

Une berri baten aurrean gaude. Maiatzean konponbidearen aldeko aurrera pausu berri bat eman da. Irekitako aukera berri honen aurrean, ulertezina da oraindik orain, hainbat herritarren giza eskubideak urratuak izaten jarraitza. Bainaz hala da, izan ere, euskal presoek bizi duten salbuespen egoera bere horretan mantentzeko hautuak, giza eskubideen urraketan sakontzea baino ez dakar.

Gero eta gehiago gara espetxe politika honek aldaketak behar dituela pentsatzen dugunok, pixkanaka-pixkanaka aldaketaren aldeko ahotsak handitzen doaz, eta geroz eta gehiago eta anitzagoak dira espetxe politika bat aldatzea eskatzen duten ahotsak.

Bide horretatik, iparraldetik, iritsi zaigu lan egiteko era eta ilusio berri bat. Gizarte zibilak ar-magabetza eta disoluzioa ahalbidetu ditu eta egun Frantzian aurkitzen diren euskal presoen baldintzak aldatzen hasi daitezen ere lortu du. Hau, jendarte osoaren parte hartzearekin bakarrik izan da posible.

Eta bide hori jarraitu nahi dugu hemen ere, presoen auziari aterabide bat emateko unean gaude, eta horretarako gizarte zibilaren parte hartzea beharrezkoa da, gizarte zibilaren unea da

Ya nadie lo puede negar: Es el momento de la resolución, la convivencia y la paz. Tras la fecha histórica que vivimos el pasado 4 de mayo, se nos ha abierto de par en par la oportunidad de poner fin a ese largo ciclo que ha generado tantos sufrimientos, y de hacerlo trabajando juntos, juntas; mirándonos mutuamente a los ojos, escuchándonos mutuamente, dando prioridad a los acuerdos que tengamos, y haciendo camino adelante conjuntamente.

Larraiza Dantza Taldea (Lizarra)

6 | BATEK DAKI kuadrillaren karroza

ETA IPUINA ALDATUKO BAGENU?

Ahoz aho iritsi zaizkigun ipuinak irakaspen bat gordetzen dute.

Belaunaldiz belaunaldi haur nahiz helduok, etxeetako sukaldeetan eta amamaren magalean zirrara ezin eutsirik entzun ditugu kontakizunak.

Garai bakoitzak, lurralde bakoitzak, gatazka bakoitzak, kontalari bakoitzak osagai berriak ekarri ditu ipuinetara.

Ez da soilik kasualitatez otso maltzurraren bidean gurutzatu den neskatila; egunero pausoz pauso, otarra eskuan daramala piztiaz betetako basoa zeharkatzen duen beste emakume ausart bat baizik. Berak ongi daki basoa guztiona dela, eta otsoak bezala beldurrik gabe bizitzeko eskubide osoa daukala.

Ez dago bakarrik, gero eta gehiago gara emakumeon askatasuna aldarrikatzen dugunok, aukera berdinak eskatzen ditugunok eta genero indarkeriagatik hildako gehiago nahi ez ditugula oihukatzen dugunok. Ez dago bakarrik, ez baita emakume askerik egongo beste batzuk menperatuak izaten ari diren bitartean. Gu geu gara benetako otso taldea.

Otsoa amonaz mozorrotu daiteke eta ahotsa findu, baina, hala ere, otso izaten jarraituko du. Limurtzen saiatuko da, eta atzaparkada batez bizitzeko eskubidea ostuko digu. Bertan hilda suertatu gaitezke, edota bizitzera behartuta dagoen hildakoa. Badakigu gizakiak biziraupenean diharduela, baina ez ahaztu gu geu ere gizakiak garela, eta ez daukala zentzurik gure artean akabatzen ibiltzeak. Segi dezagun ipuinen gisara gizartea ere eraldatzen, eta has gaitezen emakumeok, gurea ere baden istorio honetan, osagai berriak gehitzen.

¿Y SI CAMBIASEMOS EL CUENTO?

Los cuentos que nos han llegado de boca en boca guardan una lección.

De generación en generación, niños y mayores, hemos escuchado cuentos en la cocina y en el regazo de la abuela, sin poder contener la emoción.

Cada época, cada país, cada conflicto, cada narrador ha añadido nuevos ingredientes

No es sólo por casualidad la muchacha que se ha cruzado en el camino del lobo; sino cada día, paso a paso, con la cesta en la mano, una valiente mujer que cruza el bosque. Ella sabe bien que el bosque es de todos y todas, y que al igual que el lobo tiene derecho a vivir sin miedo.

No está sola, cada vez somos más quienes reivindicamos la libertad de la mujer, quienes pedimos los mismos derechos, y quienes gritamos que no queremos más muertes por violencia machista. No está sola, puesto que no habrá mujeres libres mientras que haya otras subordinadas. Nosotras mismas somos la verdadera manada de lobos.

El lobo se puede disfrazar de abuela y afinar la voz, pero, sin embargo, seguirá siendo lobo. Intentará seducir, y de un zarpazo nos robará el derecho a la vida. Podremos aparecer muertas, incluso ser convertidas en muertas obligadas a vivir. Sabemos que el ser humano continúa en la supervivencia, pero no debemos olvidar que somos seres humanos y que no tiene sentido matarnos entre nosotros. Continuemos cambiando la sociedad al igual que los cuentos y empecemos las mujeres, añadiendo ingredientes a este cuento que también es nuestro.

Musika Eskolako Trikitilariaik

7 | BOTA PIÑUE kuadrillaren karroza

ETA... ZABORRAK JANGO BAGINTU?

Zabar-zabar, zatar dena
horren erraz zabaltzeko,
zertarako gu sortzea
zaborrean kutsatzeko?

Zertarako mendi, ibai,
eguzkia, ilargia,
haizearen arnas bera
gardena eta garbia?

Zertarako oihan, baso,
abereak, hegaziak,
zertarako mundu hon(e)tan
bizi diren gizakiak?

Zertarako hauek denak
ez bada nahi, maitasuna,
nahi badugu gorrotoa,
zikinaren hustasuna?

Hala bada, hala bedi,
hala ez bada, lagun, adi!
heldu zure bideari,
izanaren iraultzari.

Lur-zeruak gu bagara,
ekin prestu, ekin jator,
ez ugalduz nahigabeki
ai, horrenbesteko zabor.

Bide egin, bide izan,
jardunez ez izan izu,
a, eta bidea, beti,
garbi-garbi zeuk egizu.

Irrintzi Dantza Taldea

8 | EYAK JODIU kuadrillaren karroza

ADIERAZPEN ASKATASUNA

Sistemarentzat onargarria denaren eta ez denaren arteko linboan zuzentzen dute bizi garen sistema. Miseriak ezkutatuz, euren burua zurituz... komunikabideak ezinbesteko adarra dira zapalkuntza honek iraun dezan.

Adierazpen askatasunaren garaian gaude: zuk nahi duzuna esan, diozun horrek nire esplo-tazioa eta pribilegioak zalantzan jartzen ez dituen bitartean. Horren adibide da, besteak bes-te, 2015eko uztailetik 2016ko abendura, soilik Hego Euskal Herrian, polizia autonomikoek 11.000 isunetik gora jarri izana Mozal Legea erabiliz.

Hemen ez da inor bere kabuz isiltzen, isilarazi egiten dute; isun administratiboak, kartzelako zoru hotzak edo karga polizialak eguneroko ogia dira. Baino ematen diguten kolpe bakoi-tza definitiboa izan daitekeela uste dugun momentu horietan, pintada bat, kanta errebelde bat edo manifestazio bat azaltzen da gu salbatzera, eta isildu nahi duten jendea bizi-bizirik dagoela, bizi-bizirik gaudela, konturatzen gara. Errepresioaren eta zentsuraren garai ilun ho-netan, inoiz baino argiago daukagu: soilik herriak salba dezake herria.

Elektrotxaranga

9 | KARROZA HERRIKOIA



Orain dela egun batzuk herritar orori, baina bereziki karrozeroi eta euskal jaiari, era-so zuzena egin ziotela gauja jakina da. Material lapurreta, txikizioak eta pintaketak: Viva España eta Viva Franco.



Erasoaren larritasunaren aurrean, herritar askok azaldu zuten beraien ezinegona, karrozeroi haien babesia helarazi eta edozertan laguntzeko prestutasuna agertuz. Horixe da carroza herrikoia, eraso tamalgarriaren aurrean herritarrak elkartu eta auzolanean egindako lana, auzolanean egindako carroza.



Leku denetatik atera daiteke zerbait positiboa, eta euskal jaiet jasandako eraso honek ere, herriko jende ezberdina helburu bakar batekin biltzea lortu du: euskal jaiari eta karrozeroi babesia adieraziz, jai herrikoi antifaxista, parekide eta anitzak aldarrikatzeko helburuarekin.



Erasoaren aurrean babesia adierazi digutenei, edozein eratara lagundi gaituztenei eta orokorrean, jaiak herritik eta herriarentzat izan daitezen lanean aritzen diren herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu bihotz-bihotzez.



Bukatzeko, carroza herrikoia izanik desfileko azken carroza, pasatu ahala karrozaren atzetik desfilatzeko deia egiten diegu herritar guztiei. Gaurko egunez, Gernikako Arbol plaza txiki uztea dagokigu.

Animatu!



Gora jai herrikoi antifaxista eta parekideak!



Es bien conocido el ataque directo a toda la población, pero en especial a los carroceros/as y a la Euskal Jaia, ocurrido recientemente. Robo de material, destrucción y pintadas: Viva España y Viva Franco.



Ante la gravedad de los hechos, mucha gente ha mostrado su malestar y su disposición de ayudar en lo que fuera, trasladando su apoyo a los carroceros/as. Esta es la carroza popular, fruto del trabajo en común realizado por los vecinos/as ante aquellos hechos lamentables.



Todo tiene su consecuencia positiva, y este ataque sufrido por la Euskal Jaia ha logrado reunir a gente diferente con un único objetivo: manifestar su apoyo a la Euskal Jaia y a las cuadrillas carroceras, con el fin de proclamar unas fiestas populares antifascistas, paritarias y plurales.



Nuestro agradecimiento de todo corazón a la ciudadanía que nos ha mostrado su apoyo ante este ataque, a todos y todas que nos han ayudado de alguna manera, y en general, a toda la gente que trabaja por unas fiestas del pueblo y para el pueblo.



Para finalizar, siendo esta carroza popular la última del desfile, hacemos un llamamiento a toda la población para que desfile detrás de la misma. Hoy nos corresponde dejar pequeña la plaza Gernikako Arbol. ¡Animaos! ¡Viva las fiestas populares, antifascistas y paritarias!

Zumarragako txistulariak



Urretxuko udala



www.urretxu.eus